

EUSKERAZALEAK

BIRAUUA

Antxin-antxiñako aldi baten euskeran ba-zan ala ez zan Jaungoikoa ta zeruetako deunak izaintzeko itz egokirik, iñork ezin baieztu, eta ezeztu be ez.

Txikia nintzanean ba, gure erritxuak erdera gitxi ekienean, «kauen», «nekasuen» eta olakoak entzuten genduzan gu baiño zarrago ta gizonduagoak ziranengandik.

Zer esaten ebenik be sarritan ez ekien.

Ordu aretatik gaur-egunera nagusitu jaku erdere, txukundu ta osotu be bai.

Lenagoko «kauenak» eta «nekasuenak» aldiaren joan etorrian argiago ta erdera obean esaten ikasi dogu eta bizarbako ume koskorak, ezpanetan errekiña eta itz orreik barik, ez dirudie gizonak diranik be. Antzik artu be ez.

Ez dagigun esan ba, orain arte lez, euskereak ez daukala Jaun eta deunak iraintzeko itz berebizikorik.

«Aktibitate kreatzelariak definizioa errepikaturik eta anunziaturik, eskema magistrala egin zuten». «Adresa eta drestu». «Greba», «bakantza», «anta», «kusina», «bulego» eta eundak geiago, euskerazko itzak ba'dira, eta alan izango, nik uste, erabiliak dira-ta, euskera barrian, «modernoan» diran lekaime, lekaide ta abadeak ezin esan daik, euskerea biraurik gabeko izkuntza berezia danik.

LANDAJUELA'tar A'k.

S aski-naski

OTSAILA 1980

75 pezta

Agur	1
Euskaldun biotza Akonkagua mendian	2
Euskal arteaz	7
USA ta URSS alkar-zelatan	11
Bidasoa ibaia	17
«Stille Nacht» Gabon-Kanta	19
Maitasunak jotako neskatxa	25
«Orienteering»	27
Bei batek bi txekor urte betean	31
Naparro zaharraren adiskideak	34
Etorkizuneko supermerkaduak	37
«Koro»ko ala «Elkoro» Andramari?	41
Txistu joka il zan	47
Jakin bearrak eta gazteak	50
Kanpion'en Errandoko txistularien berpiztea	52
Euskal itzak aztertzen	55
Aita Santua Irlanda eta USA'n	57
Ba ote dakizu...?	61
Zurruaren ondorioak	63
Keixeta aizkolaria	66
Arraultz-opillaren gertakizun txikiak ...	69
New Haven'en mirari txiki bat	71
Zain-gaixoa, gaixo illun baiña arrunta	78
Irriño baten kondaira	82
Eriotz-egarria	95

IRAKUR ETA ZABAL EZAZU

ALDIZKARI BARRI BAT SORTU DA: SASKI-NASKI/DANA EUSKERAZ ETA ERRIKO EUSKERA EDERREZ/ERDERAZKO «SELECCIONES» ALDIZKARIAREN ANTZEKOAK/EUSKAL-GAIK ETA GIZARTE GUZTIKOAK AZTERTZEN DITU/KIOSKOETAN ETA ARPIDEZ SALDUKO DA/IRAKURRI ILLERO ETA ZABALDU.

IPUIN-SARIKETA

- «Euskerazaleak» taldeak ipuin-sariketea eratzen dau.
- Bizkaieraz idatziak izan bearko dabe.
- Luzeerea: Orri aundi bi, bi-tarte bikoak, geienez.
- Jorraillaren 13'rako Talde onek artu bearko ditu.
- Orrillaren asieran, ille orretako ZER'en agertuko da maikoen ebatzia.
- Sariak iru izango dira: Le-nengoa 25.000, 2.^a 15.000 milla, 3.^a 10.000 pezeta.
- Ipuinen gaia, idazleen esku geratzen da.
- Saria lortzen .daben iru ipuiñak ZER'en agertuko dira eta idazlea jabe geratzen da.

EUSKERAZALEAK